
PRENTSA OHARRA

'DETRÁS HAY NADA' ERAKUTSIKO DU AMAYA SUBERVIOLAK BILBAOARTEN

Pintura erakusketa hau uztailaren 8ra arte egongo da ikusgai udal zentroko erakusketa aretoan

(*Bilbon, 2022ko ekainaren 10ean*). Bilboko Udalaren ekoizpen zentroak, BilbaoArte Fundazioak, Amaya Suberbiolaren «*Detrás hay nada*» erakusketaren ateak ireki ditu. Proposamen honetan, Mendabiako margolariak gailu digitaletan irudiak ikusteko moduan inspiratutako koadroak aurkeztuko ditu, pinturaren berezko lengoaiarekiko kezka batetik abiatuta. Gaur arratsaldeko 19:00etan inauguratu ondoren, erakusketa uztailaren 8ra arte egongo da ikusgai BilbaoArteko Urazurrutia Aretoan.

«*Detrás hay nada*» izenburuak –nahita pentsatutako gramatika oker batekin– gainjartzearen baliabideari egiten dio erreferentzia, bere pinturetan errepikatzen den motiboa, *nada* hori benetan *zerbailt* dela iradokiz. Amaya Suberviolak kontzeptu horrekin jolasten du bere koadroak osatzerako orduan, zer erakutsi eta zer ezkutatu edo, beste era batera esanda, zer *ez margotu* aukeratuz.

Erakusketa honetan BilbaoArte Fundazioan artistak bekadun gisa garatutako lanak ikusi ahal izango dira, baina urte honetan bertan, zentrotik igaro ondoren egindakoak baita ere. Margolanen azken itxura alda daiteke, baina hiru motibo nagusi partekatzen dituzte: iradokizuna, irudiaren mugen ebidentzia eta motiboaren distortsioarekiko interesa.

«*Detrás hay nada*» erakusketak **bi lan-prozesu hartzen** ditu bere baitan, aldi berean **teknikaren eta euskarriaren arabera bereizi** daitezkeenak. Lehenengo, liho gaineko olioeik osatuko lukete, bere ordenagailuan prestatzen dituen konposizioen pantailatzipenetatik abiatuta. Aldez aurreko zirriborroak sortzeko, artistak hainbat leihorik ditu bere artxibo personaleko irudiekin, bere interesen arabera gainjarriz, handituz eta ordenatzuz.

Bigarren obra mota akuarelaz eta gouachez edo oliaz egindako mihiztadurek osatzen dute, laserrez ebakitako paperaren gainean. Artista, BilbaoArteko egoiliar gisa hasi zen hain zuzen estetika hori eraikitzeako logikarekiko interesa garatzen, monitoreek edo pantailek igorritako irudien ezaugarri formaletatik haratago. Emaitzak ordenagailuko mahaigainean leihorik gainjartzearen teknika analogiko baten antzekoa da, artistari pintura-zatiak puzzle bat balira bezala konbinatzeko aukera ematen diona.

Erakusketa lagunten duen katalogoak obrari ematen dio protagonismoa, erakusketako piezak artxibo gisa aurkeztuz. Katalogoa garatzeko Izañ Sampedroarekin (Mal Estudio) lan egin du diseinurako, eta Jorge Islarekin argazkientzako. Testuak Pablo Merchantek, Luis Caudaupapek eta Mikel del Riok sinatzen dituzte. Artistak bere pintura eta eguneroko bizitzaren arteko lotura irakurleari hurbiltzeko erabiltzen ditu azken orrialdeak, bere artxiboko testu pertsonal eta irudiekin.

Erakusketa aretoa astelehenetik ostiralera egongo da ikusgai, 17:30etatik 20:30etara, uztailaren 8ra arte. Jaiegunetan eta astebukaeretan, itxita egongo da.

ARTISTARI BURUZ

Amaya Suberviola (Mendavia, 1993) Bilbon bizi eta lan egiten du. Arteen Graduatura da, pintura eta grafikako espezialitatearekin, eta Pinturako Masterra (UPV/EHU) ere burutu

du.

Hurrengo bekak eta egoitzak lortu ditu: gazte Artista Pentsiodunak Quintanar Jauregian (Segovia, 2015); Azterlan Artistikoen Hedapena (Nafarroa, 2015 eta 2016), Paisaia (Altea, 2016), Nautilus (Lanzarote, 2017), BilbaoArte eta Eusko Jaurlaritza (Bilbo, 2021), eta VEGAP (Madril, 2021). Hotel Carlton pinturako lehen saria jaso zuen 2017an, eta Ertibil Bizkaia selekzioa saria 2021ean.

Bere obra SC Gallery eta Galería Lumbreras (Bilbo), El Chico (Madril) edo Marian Cramer Projects (Amsterdam) galerietan erakutsi da.

→ INFORMAZIO GEHIAGO:

- Informazio gehiago nahi izanez gero, zerbitzura deitu daiteke, 94 415 50 97 telefonoen bidez edota mezu elektronikoa idatzi, bilbaoarte@bilbao.eus helbidera.

SARE SOZIALAK:

- **BILBAO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **BILBAO KULTURA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **BILBAOARTE:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)

NOTA DE PRENSA

AMAYA SUBERVIOLA EXPONE ‘DETRÁS HAY NADA’ EN BILBAOARTE

Esta muestra de pintura podrá visitarse hasta el 8 de julio en la sala de exposiciones del centro municipal

(*Bilbao, 10 de junio de 2022*). La Fundación BilbaoArte, centro de producción del Ayuntamiento de Bilbao, abre las puertas de la exposición «*Detrás hay nada*» de Amaya Suberviola. En esta propuesta la pintora mendaviesa presenta una serie de cuadros inspirados en la forma en la que se visualizan las imágenes en los dispositivos digitales, desde una preocupación por el lenguaje propio de la pintura. Tras su inauguración esta tarde a las 19:00 horas, la exposición podrá verse hasta el 8 de julio en la Sala Urazurrutia de BilbaoArte.

El título «*Detrás hay nada*» –de gramática premeditadamente incorrecta– hace referencia al recurso de la superposición, un motivo recurrente en sus pinturas, sugiriendo que *nada* es en realidad *algo*. Amaya Suberviola juega con este concepto a la hora de componer sus cuadros, eligiendo qué mostrar y qué ocultar o, dicho de otra forma, qué *no pintar*.

En esta exposición podrán verse las obras desarrolladas en la Fundación BilbaoArte como artista becada, pero también las realizadas durante este mismo año, tras su paso por el centro. El aspecto final de sus pinturas puede variar pero comparten tres motivos clave: la sugerencia, la evidencia de los límites de la imagen y un interés por la distorsión del motivo.

«*Detrás hay nada*» abarca **dos procesos de trabajo que a su vez están diferenciados por su técnica y soporte**. El primero lo conformarían los óleos sobre lino, desarrollados a partir de capturas de pantalla de composiciones que prepara en su ordenador. Para crear los bocetos previos, la artista abre varias ventanas con diferentes imágenes de su archivo personal que va superponiendo, ampliando y ordenando según sus intereses.

El segundo tipo de obra lo conforman ensamblajes ejecutados en acuarela y gouache u óleo sobre papel cortado con láser. Es precisamente durante su residencia en BilbaoArte que la artista comienza a desarrollar un interés por la lógica de construcción de esa estética, más allá de las características formales propias de las imágenes emitidas por monitores o pantallas. El resultado es un símil analógico de la superposición de ventanas en el escritorio del ordenador, que permite a la artista combinar fragmentos de pintura como si fueran un puzzle.

El catálogo que acompaña la exposición centra el protagonismo en la obra, presentando las piezas de la exposición como un archivo. Para la realización del mismo Amaya trabaja con Izan Sampedro (Mal Estudio) en el diseño, y con Jorge Isla en las fotografías. Los textos que lo componen están firmados por Pablo Merchant, Luis Caudadap y Mikel del Rio. La artista dedica las últimas páginas a acercar al lector al vínculo que mantiene entre la pintura y la vida cotidiana, con un texto personal e imágenes de su propio archivo.

La sala de exposiciones podrá visitarse de lunes a viernes de 17:30 a 20:30 horas, hasta el 8 de julio. Festivos y fines de semana, cerrado.

SOBRE LA ARTISTA

Amaya Suberviola (Mendavia, 1993) vive y trabaja en Bilbao. Graduada en Arte, con especialidad en pintura y gráfica, y Máster de pintura (UPV/EHU).

Ha obtenido las becas y residencias: Jóvenes Artistas Pensionados en el Palacio Quintanar (Segovia, 2015); Ampliación de Estudios Artísticos (Navarra, 2015 y 2016), Paisaje (Altea, 2016), Nautilus (Lanzarote, 2017), BilbaoArte y Gobierno Vasco (Bilbao, 2021) y VEGAP (Madrid, 2021). Recibe el Primer Premio de Pintura Hotel Carlton en 2017 y el premio selección Ertibil Bizkaia en 2021.

Su obra se ha mostrado en galerías como SC Gallery y Galería Lumbreras (Bilbao), El Chico (Madrid) o Marian Cramer Projects (Ámsterdam).

→ **MÁS INFORMACIÓN:**

- Las personas que deseen ampliar la información también pueden contactar con el servicio llamando por teléfono al 94 415 50 97 o escribiendo un email a bilbaoarte@bilbao.eus.

REDES SOCIALES:

- **BILBAO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **BILBAO KULTURA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **BILBAOARTE:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)